

DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	HAUR-HEZKUNTZAKO EREMUAK	LEHEN HEZKUNTZAKO ARLOAK	ARLOEK ETA IKASGAIEK MATEMATIKAKO KONPETENTZIA LORTZEKO EMATEN DUTEN LAGUNTZA
Hizkuntza-eta literatura-komunikaziorako konpetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Euskara eta Literatura Gaztelania eta Literatura Atzerriko Lehen Hizkuntza	Norberaren azalpenak adieraztea eta besteen azalpenak entzutea lantzean, edukien ulermena, espiritu kritikoa eta komunikazio-trebetasuna garatzen dira. Matematika berezko ezaugarriak dituen beste hizkuntza bat denez, erabat lagungarria bihurtzen dira garapen horiek.
Zientziarako konpetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Naturaren Zientziak	Inguruan dugun errealitatea hobeto ulertzeko hizkuntza matematikoa erabiltzen dugu: Algoritmoak, funtzioak, kalkulu eta eredu matematikoa, ... -Fenomeno naturalak azaldu, hipotesiak egin, emaitzak deskribatu-azaldu-aurrean, informazio erregistratu, datuak modu adierazgarrian antolatu, datuak eta ideiak interpretatu eta naturaren legeak formalizatu,...
Teknologiarako konpetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Naturaren Zientziak	Mundu fisikoan eta birtualean esku hartzean zenbatespenak eta balioespenak erabili. Zehaztasuna ezinbestekoa da. -Sinboloen eta adierazpenen erabilera sistematizatu, neurtu, interpretatu, ebatzi, aplikatu. Algoritmoak, taulak, eskalak, grafikoak eta eskemak sortu.
Konpetentzia sozial eta zibikoa	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Gizarte Zientziak Balio sozial eta zibikoak/Erljioa	Gizarte-errealitatea deskribatzeko eta aztertze tresna hauek erabili daitezke: -Eragiketa errazak, magnitudeak, ehunekoak eta proportzioak, oinarriko estatistika-nozioak, zenbaki-eta grafiko-eskalak, forma geometrikoen erreferentzia-edo ezagutze-sistemak, neurri-irizpideak, informazioen kodifikazio numerikoa eta horien irudikapen edo errepresentazio grafikoa. -Ingurune fisikoaren ezaugarri espazialak, mapak, profil topografikoak,...

Arterako konpetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Arte Hezkuntza	Konpetentzia honen barruko arlo eta ikasgaiek matematikarako konpetentzia lantzen laguntzen dute, honakoak baliabideak erabilia: -Espazioa irudikatze sistema jakin batzuk sortu: Forma geometrikoak marraztu, era guztietako objektuak diseinatu. Neurriak eta posizioak baliatuz formen arteko erlazioak ulertu eta pertsonen eta objektuen kokapen espaziala zehaztekoak. -Musika-diskurtsoen denbora-irudikapena egin eta musikaren funtsezko elementuetan proportzioak, bitartekak eta simetriak erabili.
Konpetentzia motorra	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Gorputz Hezkuntza	Ezaugarri askotarikoak dituzten espazio ugaritan egiten dira jolasak eta kirolak; beraz, ondo ezagutu eta menderatu behar dira espazio horiek. Adierazpen dramatikoak eta korporalak lantzean, funtsezkoa da espazioa eta denbora kontrolatzea. Egoera fisikoa hobetu eta indartzeko programak diseinatzeko eta elikadura-ohiturak hartzeko Matematika-kalkuluak egiten eta estatistika erabiltzen jakin behar